

UDAL LAGUNTZA EKONOMIKO INDIBIDUALIZATUAK, COVID-19K ERROIBARKO UDALERRIAN INSTALATUTAKO NEGOZIO ETA ENPRESETAN SORTUTAKO APARTEKO GASTUEI AURRE EGITEKO

1.- XEDEA

Deialdi honen xedea da zuzeneko udal-laguntzak ematea Erroibarko udalerrian jarduerak egiten dituzten enpresa txiki eta ertainei, autonomoei eta tokiko saltokiei, bai eta autonomoei eta Nafarroan JEZren mende ez dauden enpresa txikiei ere, hala nola abeltzaintzako, nekazaritzako eta basogintzako enpresei, osasun-krisi honek izan dituen ondorio ekonomiko negatiboak arintzen laguntzeko eta establezimenduak ixteak edo jarduera eteteak eragindako kalteei aurre egiteko.

Erroibarko Udalak diru-laguntza lerro bat sortu du Covid-19 pandemiaren ondorioak arintzeko eta aipatutako ibarreko sektoreei laguntzeko.

Aldizkakoa ez den salbuespenezko eta premiazko laguntza-lerro hau emateko oinarriak martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan oinarritzen dira. Dekretu horren bidez, COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaritzen da.

2.- ONURADUNAK

Laguntza hauek jaso ahal izango dituzte Erroibarko saltoki txikien, ostalaritzako lokalen eta zerbitzuen titular diren pertsona fisiko edo juridikoen, Gizarte Segurantzako Langile Autonomoen Araubide Berezia afiliatutako pertsona fisikotzat, mikroenpresatzat edo ETEtzat jotzen badira legez, eta deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen badituzte.

Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan enpresa- edo lanbide-jarduera gisa alta emanda dauden enpresa txikiak eta pertsona fisikoak, edozein dela ere haien forma juridikoa, Erroibarren jarduera ekonomiko bat gauzatzen duten eta eskabidea aurkezteko unean behar bezala eratuta daudenak, bai eta autonomoak eta JEZri lotuta ez dauden enpresa txikiak ere, hala nola abeltzaintzako, nekazaritzako eta basogintzako enpresak.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua eta haren ondorengo aldaketak eta luzapenak indarrean sartzearen ondorioz fakturazioa murriztu duten enpresak, baldin eta jarduera presentziala edo jendearentzako irekia egiten badute udalerrian.

Aurreko urteko aldi bereko konparazioarekin alderatuta fakturazio-galera izan duten merkatariak, ostalariek, autonomoei eta enpresa txikiei zuzenduta daude.

3.- BETEBEHARRAK ETA BALDINTZAK

Ezarritako laguntza horiek jaso ahal izateko, betekizun eta baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduko baldintzak betetzea.
- b) Pertsona fisiko edo juridikoek Erroibarko udalerrian izango dituzte lantokiak.
- c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (EJZ) izena emanda egotea Erroibarko Udalean, Alarma-egoera deklaratu zen egunean, hau da, 2020ko martxoaren 14an.
- d) Ogasunarekiko, Gizarte Segurantzarekiko eta Erroibarko Udalarekiko betebeharrak ordainduta izatea, diru-laguntzak emateko ebazpen-proposamena ematen den unean. 5 eguneko epea emango da egoera zuzentzeko. Betebehar hori betetzen ez bada, diru-laguntza erabat ukatuko da.

Jardueraren titularrak edo erakunde onuradunak laguntza bakarra jaso ahal izango du, edozein dela ere inskribatutako ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafe kopurua.

Udal Administrazioak diru-laguntza hau erabiltzean antzemandako edozein irregulartasun Udalak ikertu ahal izango du. Diru-laguntza iruzurrez erabiliz gero, berehala kenduko da laguntza. Pertsona edo erakunde onuradunak bere egoeran gertatzen diren eta diru-laguntza eskuratzeko eskubideari eragiten dioten aldaketen berri eman beharko du.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak ez zaizkie aplikatuko honako hauei:

- Elkarateak, irabazi-asmoa duten edo ez duten Fundazioak eta Aldi Baterako Enpresa-elkarateak.
- Administrazio publikoak, haien erakunde autonomoak, enpresa publikoak eta bestelako erakunde publikoak.
- Irabazi asmorik gabeko erakundeak.
- Banku- eta kreditu-negozioak
- Baldintza hauek betetzen dituzten autonomoak:

a) 2020ko martxoaren 14an langabezia-prestazioaren jasotzaileak edo jarduera uzteagatik zegokien babesaren jasotzaileak, azken hori urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginaren 37. artikuluan eta hurrengoetan arautua.

b) 2020ko martxoaren 14an edo geroago besteren konturako langileak izatea.

4.- ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

a) Diru-laguntza eman duen organoaren aurrean justifikatzea baldintzak eta betebeharrak betetzen direla, eta udalari bidaltzea laguntzen deialdian eskatutako dokumentazioa, hark zehaztutako moduan.

b) Diru-laguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztapen-jardueren mende jartzea, bai eta kontrol-organo eskudunek egin dezaketen beste edozein egiaztapen eta finantza-kontrolen mende ere, eta aurreko jarduerak gauzatzean eskatzen zaien informazio guztia ematea.

c) Erroibarko Udalari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerak finantzatzen dituzten beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk lortu izana. Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta, nolahi ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

d) Diru-laguntza emateko ebazpen-proposamena eman aurretik, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzea.

5.- AURREKONTUAREN MUGA OROKORRA

Ematen diren laguntzen aintzatespenak muga kuantitatibo hau izango du: 1 4390 4700000 laguntza COVID-19 partida, Erroibarko Udalaren urteko aurrekontuan horretarako aurreikusitakoa, eta partida hori ez da behartuta egongo ekitaldi bakoitzerako gaitutako aurrekontu-xedapenen gainetik. 2020an aurreikusitako partidak 30.000 € izanen ditu. Ezingo da proposamen honetan ezarritako zenbatekoa gainditzen duen diru-laguntzarik eman.

6.- LAGUNTZA EDO DIRU-LAGUNTZA MOTAK

6.1. 1 MODALITATEA (600 €)

600 euroko diru-laguntza, jarduera uzteagatik aparteko prestazioa eskuratzeko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuan jasotako jarduera duten onuradunentzat.

Jarduera irabazien % 50 izatea.

6.2. 2 MODALITATEA (300 €)

300 euroko diru-laguntza, 1. modalitatean sartuta ez egon eta oinarri hauetako bigarren puntuan adierazitako jardueraren bat egiten duten onuradunentzat, baldin eta beren jardueraren murrizketa nabarmena izan badute, eta, horren ondorioz, 2020ko bigarren hiruhilekoan diru-sarreraren % 20ko edo gehiagoko murrizketa izan badute fakturazioan, 2019ko bigarren hiruhilekoan lortutako diru-sarreraren batez bestekoarekin alderatuta.

Jarduera irabazien % 50 izatea.

7.- ESKABIDEAK AURKEZTEA: EPEA, TOKIA ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- Eskabideak aurkezteko epea.

Erroibarko Udalak web-orrian eta iragarki-oholean argitaratuko ditu laguntzak, onuradun izateko eskatzen diren baldintzak betetzen dituztenek eskabidea aurkez

dezaten. Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik aitzina. Epea luzaezina izanen da.

Epez kanpo aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko.

- Eskabideak aurkezteko lekua eta modua.

Eskabideak Erroibarko Udalaren Erregistro Orokorrean, Erroibarko Udalaren egoitza elektronikoaren bidez, eta administracion@erro.es helbide elektronikoan aurkeztu ahal izango dira.

Laguntzak jasotzeko eskabideak eta eranskinak Udalaren web-orrian egongo dira eskuragarri. Erroibarko Udalak beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarria eskatu ahal izango du aurkeztutako eskaera baloratu eta ebazteko.

- Aurkeztu beharreko agiriak.

Oinarri hauetako I. Eranskina beteta aurkeztuko da, ondoren adierazten den dokumentazioarekin batera:

- 1- NANaren fotokopia pertsona fisikoa bada, eta IFZ pertsona juridikoa bada.
- 2- Gizarte Segurantzako Erregimen Berezian autonomo gisa alarma-egoera deklaritzen den egunean eta diru-laguntza hau eskatzen den unean afiliatuta eta alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.
- 3- Diru-laguntza eskatzeko unean Gizarte Segurantzaz eta Foru Ogasunean egunean egotearen ziurtagiria.
- 4- 6.1 ataleko laguntzak eskuratzeko:
2020ko martxoaren 14tik maiatzaren 3ra arte (egun hori barne) itxita eta lanik egin gabe egon izanaren erantzukizuneko adierazpena.

6.2. ataleko laguntzak eskuratzeko, 2019ko eta 2020ko 2. hiruhileko naturalean egindako fakturazioa egiaztatu behar da.

- Fakturazio-aldietan fakturatutako zenbatekoen erantzukizuneko adierazpena.
- BEZagatik ordaintzen dutenak: BEZaren liburua.
- BEZa moduluka ordaintzen dutenak: ezarritako aldietako salmenten zerrenda.

Egiaztagiriak aurkezteko prozesua azkartzeko, Udalak eskaera bakoitzari honakoak erantsiko dizkio:

- Erroibarko Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergan alta eman izanaren ziurtagiria (epigrafeka xehatua).
- Erroibarko Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria (erantzuna ezezkoa bada, eskatzaileari jakinaraziko zaio).

8.- LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA

Deialdi honetan araututako diru-laguntza Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.1 eta 23.etik 27.era bitarteko artikuluetan ezarritakoaren arabera emango da.

Diru-laguntza zuzenean emango da, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2.c) artikuluan xedatutakoaren arabera. Honela dio artikulua horrek: "Salbuespen gisa, interes publikoko, sozialeko, ekonomikoko edo humanitarioko arrazoiak egiaztatzen dituzten bestelako diru-laguntzak, edo deialdi publikoa zailtzen duten behar bezala justifikatutako beste batzuk." Pandemiak sortutako salbuespenezko egoera dela eta, deialdi honetan eskatzen diren betekizun eta dokumentazio guztiak betetzen dituzten eskabideak onartuko dira.

Laguntza horiek banakako ebaluazio-erregimenean izapidetuko dira.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta baloratu ondoren emango da diru-laguntza.

Eskabideak eskatzen diren baldintzak betetzen ez baditu, interesdunari eskatuko zaio bost egun naturaleko epean akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko, eta adieraziko zaio, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

Diru-laguntzak emateko dokumentazioa eta proposamena lantzeko deialdi honen instruktoarak Kontu Batzordea osatzen duten udalbatzako kideak izango dira.

9.- EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA.

Eskabideak Alkatetzaren ebazpen bidez ebatziko dira, eta gehienez ere hilabeteko epean jakinaraziko dira, onartzen direnetik zenbatzen hasita. Ebazpenik ez ematea ezetsizat joko da.

Banakako jakinarazpenari kalterik egin gabe, enpresa onuradunen zerrenda udalaren webgunean eta udaletxeko iragarki-oholean argitaratuz jakinaraziko da.

Eskabideak aztertu, ebatzi eta jakinarazi ondoren, Erroibarko Udalak diru-laguntza ordainduko du. Eskaerak aurrekontu-esleipena gainditzen badute, gastua egindako eskaeren artean hainbanatuko da.

10.- DIRU-LAGUNTZAREN BATERAGARRITASUNA

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio publiko batzuek edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako diru-laguntzekin, baldin eta xede bera badute edo helburu bera badute, eta, betiere, laguntzen guztizko zenbatekoak ez badu gainditzen eskatzaileak 2019an hilean batez beste egindako fakturazioa.

11.- DIRUA ITZULTZEKO PROZEDURA

Jasotako zenbatekoak osorik edo zati batean itzuli beharko dira, eta berandutze-interesa eskatuko da diru-laguntza ordaintzen denetik itzultzea bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte, baldin eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 36. eta 37. artikuluetan adierazitako arrazoietakoa bat gertatzen bada.

Zehazki, osorik edo zati batean itzultzeko arrazoiak dira:

- Eskatutako baldintzak ez betetzea, Administrazioak bere ohiko kontroletan egiaztatu ondoren.
- Iruzurrezko jarduerak edo datuak ezkutatzea.
- Diru-laguntzen konkurrentzia, horien bateragarritasuna salbu, eta deialdi honetako 4. puntuan ezarritako muga gainditzen ez bada; kasu horretan, hura gainditzen duen zenbatekoa itzuli beharko da.

12.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Arau-hausteei eta zehapenei dagokienez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta lege hori garatzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Erregelamenduan xedatutakoa beteko da.

1. ERANSKINA

Izena..... Lehenengo abizena..... Bigarren abizena.....

Helbidea:..... Herria:.....Posta kodea.....

NAN:

Telefonoa.....

Posta Elektronikoa:

ESKATZAILEAREN BANKU DATUAK (Diru-laguntza ordaintzeko)

Entitatea:

Kontu zenbakia (IBAN).....

ESKAERA:

Erroibarko Udalari eskatzen dio bere udalerrian garatzen diren eta Alarma Estatuaren Adierazpenean ezarritako euste-neurriek eragin dieten jarduera ekonomikoetan COVID-19ren ondorioak arintzeko laguntzen deialdian onartua izatea, eta honako laguntza hau eskatzen du (bakarra aukeratu):

- 600 euroko diru-laguntza (Oinarrietako 6.1.) puntua)
- 300 euroko diru-laguntza (Oinarrietako 6.2.) puntua)

Eta hartara:

ADIERAZTEN DUT ez nagoela Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Erregelamenduan zerrendatutako debeku-kausetako batean ere.

ADIERAZTEN DUT Administrazio-zehapen irmorik edo kondena-epai irmorik ez naizela betetzen ari edo, hala badagokio, sexuagatik edo generoagatik diskriminatzailetzat jotzen diren lan-praktikak egiteagatik edo onartzeagatik ezarritako zehapen edo kondena-epai baten zain ez nagoela. Era berean, deklaritzen dut ez nautela enplegu-programak aplikatzearen ondoriozko onuretatik kanpo utzi arau-hauste oso larriak egiteagatik, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginean aurreikusitakoarekin bat etorritz.

ADIERAZTEN DUT berretsi egiten ditudala laguntza ekonomikoen deialdi honetan eskatzen diren gainerako baldintzak (deialdi hau 2020ko abenduaren 30eko Udal Osoko Bilkuraren Erabakiaren bidez onartu zen).

ADIERAZTEN DUT aipatutako datu guztiak egiazkoak direla, eta jabetzen naiz datu horiek ezkututzea edo faltsutzea nahikoa arrazoi izan daitekeela espedientea ezerezteko,

hargatik eragotzi gabe dagozkion gainerako administrazio-ekintzak edo zigor-arloko egintzak.

Modu berean, berariaz BAIMENA EMATEN DIOT Erroibarko Udalari nire datu pertsonalak informatikoki tratatzeko eta lagatzeko, soil-soilik laguntzak behar bezala izapidetzeko.

Aurkeztutako ziurtagiriak:

- NAN/IFZren fotokopia.
- Gizarte Segurantzarekiko eta Nafarroako Zerga Ogasunarekiko betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.
- Alarma-egoera deklaritzen den egunean Gizarte Segurantzako erregimen berezian autonomo gisa afiliatuta eta alta emanda egotearen egiaztagiria, bai eta diru-laguntza hau eskatzen den unean ere.
- Fakturazio-aldietan fakturatutako zenbatekoen erantzukizuneko adierazpena. BEZagatik ordaintzen dutenak: BEZaren liburua. BEZa moduluka ordaintzen dutenak: ezarritako aldietako salmenten zerrenda. Jardueraren bolumena egiaztatzen duten liburuak eramatera behartuta ez daudenek murrizketa hori zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bidez egiaztatu beharko dute. (Oinarrien 6.2 puntuko laguntzarako).

Lintzoainen, 2020koren(e)an

Sinadura